1 - BAZTERRETAN ZER DAGO ?
(instrum.)

2 - GEROA ERAIKI

Zuen geroa prestatu denborarik galdu gabe
Gaur bihar dela oroitu geroa arrapatu arte

Bainan zoin geroa ez dut ulertu
Bakoitsak berea
Nork du finkatu jokoaren legea ?
Ahal dira ? Zoin helburuarekin ?
Bizitza luzatu ? Bainan denentzat berdin ?

Atzo hemen gerla bazen jateko ez da gelditzen
Eta inor ez da kezkatzen petrolorik ez dut saltzen
Ez dut inor interesatzen eta geroa duzu aipatzen

Bainan zoin geroa ez dut ulertu
Nunbaiten galdu da
Egunek urteak irauten dute
Gu gira kondenatuak

Batzuek badute gehiegi bainan ez dute erabaki
Saberakinakin zer egin, banatu, bota
Hortaz pen tsatzeko denbora hartzea beharrezkoa da
Bainan dena ustelduko da, nork ote du falta

Orain zoin geroa nahi dut ulertu
Zuentzat behar bada
Zuentzat behar bada
Ongi ari zaitezte, zientza baduzue

Iztripu ttiki bat batzuetan hau da txanpinioia
Ondorioarik ez du bainan bost patako ardia
Arma nuklearra bixtan da
Lurra bat baizik ez da
Hartu nere parte bat oizu nere doblea
Zer bikaina - Hau geroa
Ez, besterik ez da behar

3 - FAXISMOARI UKO

Ez dakit noiz sortu zaren nun diren zure sustraiak
Eta dena jakin ez arren ez zaitut ulertzen

Zure gezurrak hedatzeko gizakien beldurkeriaz
Beti zira baliatzen ez zaitut barkatzen

Arazoak zeharkatu aterabide faltxuaz
Gizartea eraiki nahi duzu berexiak ezeztatuz

Poderea hartzen duzu zure legeak inposatu -
Zure metoôoa

Kontrakoa sarraskitu errasismoa garratoa
Dira zure gogoetak - aitortu ezina

Txanogorritxu ttikia biktima zarela diozu
Beharra sentitzen baduzu otxoa bilakatzen zira

Zure egina guziak
heriotza eta malkoak -
Orain behar dugu

Fitxik banatu ez duzu nahi eta segitzen duzu alai
Bainan zutaz denak gira blai - zurekin bukatu

Gizakiaren etsaia, zoin da motibazioa
Noiz konturatuko zira beti okerra zarela

Zurekin ez dugu bukatu bainan bai
Beti norbait zure kontra borrokatzeko
Izanen da momentoa iritxi da orain
Ustelkeria mundutik kanporatzeko

Faxismoari emaiozu behar duen erantzuna

Eta inoiz ez ahaztu
zakar untziak botatzen
Uxain txarrik baizik ez du ela !

4 - GEZURTI

Artikuloa bukatu eta igortzen duzu
Egiarekin zerrikusirik ere ez badu

Garrantsitsuena ez da
Nagusiak erran duena
Segitzen duzu hitzez hitz
Pozik zira estimatua

Zenbat sinesle ikusi eta

Hasierako xedeak
Aspalditik ahaztuak
Egoera guzietaz
Baliatzea ikasi duzu

Sinesle gehio dago egunero
Dena ongi doa

Lehen aldian zaila da
Damuak izaten dira
Bainan pixka pixkanaka ahanzten da
Horrekin egin behar da
Laster ohituratzen zira
Prostituta guziek errana
Zure gezurren ondorioetaz futitzen zira
Zu ez zira inoiz izanen kondenatua
Zuk badakizu egia erraitea ez dela ona
Agindueri obeditzea segurrago da

Eraiten duzu kazetaritza egiten duzula
Gezur saltzaile

5 - FIDATU EZINA

Hortan da arazoa, aukeratu duzun
Aldea jakiteko mediorik ez dela

Beti garbia izan zarela, betiko kantua
Bainan elementu gehiegi badira
Duda desagertzen da

Hortan da arazoa, aukeratu dituzun
Lagun bakarrak, txakurrak

Haiekin ez duzu fitxik ikustekorik
Bainan denbora asko pasatzen
Guttitan baztertzen konbidatutako
Aperitifa maiteari

Egia ez ahal da ?
Salatari malatari ipurdi militkaria

Nazkagarri burua galtzen ahal duzu
Kaxu egizu, lagun horiek
Arazoak baizik ekarriko dizkizute

Kezkatzen hasi bazira
Normala izaten ahal da
Aspalditik segitua baizira
Bakarrik gelditzen zaigu
Xehetasun bat finkatzeko
Eguna lekua

Lasaitzen ahal zira egia ez baita
Bainan bada ezpada

Auto azpian begira ezazu
Noizbehinko eta gehio
Paketerik agertzen ez bada orduan
Egun ba gehiago

Kolore zurbila, mehetu ahal zira
Oheratzen zira, bihar ez ahal da
Egun bat gehiago ?

6 - DELIRIUM TREMENS

Gelako ohetik kaleko istila begiratzen nuelarik
Igela, xixari elkar jolasten ari,
xakurra nardatzen ari
Beraiekin joan nintzen korrika, oihuka,
haiekin joatea, bidea segitzea
Beltza, gorri, ferde eta ori,
kolore guztiak ezagutu eta bizi !

Medor eta emazte, ranbo eta krusoe
lasterketa egiten,
Garagar eta patxa, guiski eta tekila,
hori dena nahasten.
Gauaren erdian, akelarre bateon jende
guzia ari zen dantzan.
Sua bazen, kriston beroa zen eta bat batean,
euria hasi zen !
Aterberik ez da eta uhainak ni baino haudiak dira !
Nahi nuke hortik atera !!!
baina galdu dut nere bidea !

Noiz bukatuko da ? aspertzen naiz eta ez dut maite hemengo giroa.
Hartuko dut motoa bainan ez da nerea, polizia atzetik dabiltza.
Pizten dute txistua, argia itzulika, harrapatzen naute, zer gertatzen da ?
Esnagailu oihuka, pizten dut argia, berandu nabil egunero bezala !

7 - ITOIZ 96.VI.23a

Idazten dizut gutun hau egoera larria dago
Hiltzera kondenatu naute ez dakit gehio zer egin
Obra haundi bat dela diote nere garputzaren gainean
Itxaropena galtzen ari naiz zoin da atera bidea
Jende askok sustengatzen nau nere alde borrokatzen da
Badakit ez dudale etsi behar guda ez da arainšik galdua
Autetxiek dute erabaki nahi zoin izanen den geroa
Haien programa da heriotza adostasune ezin lortuz

Bizitzea da nere erabakia azkar erraiten
dut Itoiz biziko da

Oroitzen naiz zure denboran nola mugitu zen jendea
Historiak erakutsi digu beti irabazten ahal dela
Nahi nuke goiz batez esnatu amets txar hori ahaztu
Irati ibarra begiratu eta geroari pentsatu
Mundu osoak jakin behar du borroka ez dela bukatu
Irabazi arte segi behar dugu gure Herria salbatu
Maite ditut nere anaiak arebak eta burasoak
Maite zaituztet lagunak gora Solidarioak
Bizitzea da nere erabakia azkar erraiten dut
Itoiz biziko da
Herriaren salbatzea denen afera baita,
Itoizekin elkartasuna

Idazten dizut gutun hau egoera larria dago
Hiltzera kondenatu naute zuk zer egingo zenuke
Oroitzen naiz zure denboran nola mugitu zen jendea
Milaka egin zuten borrokatu eta Lemoiz apurtu
Jende askok sustengatzen nau nere alde borrokatzen da
Irabazi arte segi behar dugu gure Herria salbatu
Jountto eta gobernu guziak oker zarete denak
Inoiz dituzue bururatuko zuen proiektu ilegalak

Bizitzea da nere erabakia azkar erraiten dut
Itoiz biziko da

8 - DANTZARI BELTZAK

Mutxikoak, fandango, bazterretan zer dago ?
Atabal, txirula, bazterretan zer dago ?

Lasaiki, polliki, bazterretan zer dago ?
Kantari, dantzari, bazterretan zer dago ?

Burutik zangorat beltzez beztituz
Burua mugituz harat hunoka
Lurrean etzanik petarra eskuan
Hor gaituzue dantzari beltzak !!

Zieri ez gira fidatzen
Bagabiltzo mugak hautsiz
Gure buruaz jabetuz
Gure bizitza hautatuz

9 - SISTEMA BIHURRIA

Sistema bihurri honetan
Ez ez dezogun utz borroka
Zuzengabekeria
Jasaiten dugun bitartean.

Haundiaren ipurdi miltkariek
harratzen dira atzetik, sahesetik, ostikoz jo.
Begi batez nagusiari begira,
manatzaileen ahulezia guzien seinak.

Nihork, nihonere, nihoiz
Ezingo du eman oztopo
Zapalduak batuta,
herria da kaleratuko.
Euskaldun bakoitzari da hautatzea,
Ez, guk ez dugu nahi heien bakea, nagusien bakea,
Jendea gosez hiltzen den bitartean.
Ilargira doaz aurrearpenaren izenean.

Torturaren aitzinean
Sinestarazi nahi daukute,
Euskal odola eskutan,
Egia heiek daukatela.

Euskal herria ez da lo, ez lotuta
Bai ekaitza prest dago, gure lerroak tinko
Parisen ez da behinere zuzena,
Muga horri, denek ito!

10 - UDA

Ongi etorri uda, madarikatu uda,
Eguzkia atera dela, denak ondartzara.
Ur kimikoz zikina, arrainak tripa airean,
Galtzerdiak ta espartinak, denak ondartzara.

Hi gazte udan egin lan goizetik gauera lan.
Eguzkia atera dela denak ondartzara.
Turisten eskakizunak oherez bete itzazkizu.
Paella, korizo, ventas,
Que c'est bien le Pays Basque
Uda, madarikatu uda. Amaitu da.Uda.
Dirua ta Eguzkia.
Uda madarikatu, madarikatu uda.
Eguzkia atera dela denak mendira,
autoak mendi puntan eraman nahiean lan,
Ingurumena ahalgetasunean suntsitu.

Hi jountto begi itsu, noiz arte zanpatzen ari?
Hi jountto begi itsu, herriaren xintximari.
Bizia thalasoteratu, ta tripa Mc Doratu
Dirua irabazi nahiean ametsak suntsitu.

Turismoa ala kultura, hautu zikina...
Ene herriko gau urdin xoragarriak

11 - NORA GOAZ ?

Zer gertatzen da, zergaitik alde egitea
Zure herritik ederra maite duzuna ?
Nola posible da uztea, arbasoek eraikitako etxea ?
"Lanik ez dut ez atsemaiten.
Kostaldean beharbada, han dut sekatzen."
"Zer uste duzu, desberdin izango dela ?
Nagusiek besoak idekirik dituztela,
etxeak urririk direla?
Sosik ez baduzu, ez zira angi etorria !
Turisteri bai, irrinoa, zerbitzari herrikoa.
Udaren bukaera arte, bi hilabete laneau,
hain beste..!
Hori bistan dena deklaratu gabe.
Uste baduzu poltsa beteko duzula, zerbait gelditu-
ko zaizula.
Momentua da esnatzea !
Errandutanarekin egin nahi duzuna
Zuri abisatzea zen nik nahi nuena
Ez ezazula utzi zure herria
Itzuliko zarelarik saldua izanen da

Behar diegu erakutsi, gure arbasoen l
urra ez dela salgai !!

12 - KOMANDO PIKURA

M.Ck bazuen nortasuna
Hori ez zen maitatua
Châteaux-Thierryko buruzagitzan
pikura besoan jarri
Psikiatroak erabaki
nahiz eta ez izan eri
teknika berria ez da
preso bat suntsitzea
Hori da komando pikura
M.C bezala badira
Presondegiaren sistema
Salatzea ausartzen direnak
Hilabeteak, urteak, eramaiten borroka
Bainan erantzun bakarra bakartasuna
Presondegitik presondegira, torturaz tortura
erabaki bat hartu behar da, laster azken etapa
Onartu ezinen lekua
lasterketaren bukaera
Kalbarioa hasten ahal da
Gogor egitea alferrik da
tratamendu azkarrena da
hondamenara kondenatua
zonbiak eginak dira
gorputz robotizatua
Adiera gabeko bisaia
Nahia guztiz suntsitua
Gehio izanen ez dira
Egun batez izan zirena
Aterabide psikiatrikoa gehio eta erabiliagoa
ausartzen denaren aurka komando pikura
Demokrazian sabelean axolagabetasun osoan
Gidoi ezin txarragoa jolasten ari da

Bihar noren itzulia ?
Zurea edo nerea ?

13 - BIZI HOTZA

Trikitatik ongi ikasia
Zu sekulan altsatu ez zira
Burasoek kokatutako bidean
Zoaz golderarik egin gabe
Ezerrez pentsatu ezer!
Eskola, soldaduska eta lana,
Ezkontza, bi haur, mutikoa eta neska
Zure biziaren egin behar guziak betetuz
Pausatzen ahal zira.
Ezer ezagutu, ezer!
Bizitzan ez duzu parte hartzen
Eztabaidetan ez zira aitzinatzen,
Beti azkarrenaren aldea hautatuz
Arriskurik ez da aurkitzen
Bizitza zure gainean lurratuz doa
Zergaitik beste zerbait ba ote da ?
Zure ingurutik hurbil den munduan bizi zira
Zurekin esnatzen eta ere oheratzen da
Sekulan norbaitek eman nahi badizu bere iritzia
Ados, ados baina laister filma hasiko da, orduan
Otoi orain aski da.
Gizaki gaixoa, helburu gabea, espiritu ahula,
miseria!
Bizitza bukatu ezertaz ohartu, ezerrean galdu.
Bukaera!
Ez, ez duzu ezerren gogoa
Ez ez duzu inorren beharra
Ta bostaxola!!

14 - ZOZOAREN BALADA

Atzo ez nuen dirurik, ez jantzirik, ez etxerik
Laguntza eskatu dietalarik, ostiko bat eman didate bakarrik
Lurrean egon naiz jarririk, ez nuen gehiago ideiarik
Ez nuelako itxura onik konporatu naute gogotik

Hemen bizitzeko, baldintza asko badira
Lana eta familia, aberria maitatzea
Bide xuxena, adibide ona, oker dena salatzea
Segi hori dena eta zure bizia zoriontsua izanen da

Bide hortan saiatu naiz eta nere tokia eginik
Egun batez ikusi zaitut, goxe zinela erranez ez besterik
Lurrean zinen jarririk, ez zenuen gehiago ideiarik
Ez zenuelako itxura onik konporatu zaitut gogotik

Oroitu naiz zure kasuan izan nintzela egun batez
Pettoa arrapatu nahi izan dut eta laster aurkitu zaitut
Erantzuten ez zenuelako iratzarri nahi izan zaitut
Fitxik ulertu ez nuelako, nik kondenatu zaitut

15 - ZUEN BOTOA EMAIDAZUE

Emaidazue zuen botua eta ikusiko duzue
Betidanik nahi izan dituzuen gauza guztiak
Hitz emaiten dizuet denek ukaiten ahalko dituzuela
Baina hortarako nerekin fidatu beharko duzue

Ez ezazue kasurik eman
Besteek erraiten dutenari
Haien gezurrak ez sinetsi
Zuen arazo guztien
Aterabidea naiz eta
Haiek bereziki eragina

Ni naiz zuen salbatzailea zuen itxaropena
Ez ezazue aukera gal neri botua eman orain

Medioak har ditzagun demokraziaren etsaiak orain gelditzeko
Ber eman ditzaiogun gure herriari berea den maila

Besteak gure hondamena
Haien jokoan sar ez gaitezen
Iturburuari leial beti
Bakarrika hola dene esker
Irabazten ahalko dugu
Herri osoz fidatzen naiz

Ni naiz zuen salbatzailea zuen itxaropena
ez ezazue aukera gal neri botua eman orain

Irabazi dut,
orain lortu dut nahi dudana egiten ahal dut
Aseguratzen pixka bat badut ongi jokatuz,
ongi moldatuz, herria poltxan emaiten ahal dut
Eta entzun nahi duen guztia aski dut.

Bo ! Ale ! kalmatzen naiz
Dios ez zait ateratzen lasaitu,
lasaitu ale orain
bai...

Zuen konfiantsa eman didazue, eskertzen zaituztet.
Abisatu behar zaituztet
Erresa izanen ez dela
Jodanik lanean hasi gira
Denok indarra emanez
Denok pixka bat eginez
Erroma ez zuten eraiki egun batez

Zergaitik hola begiratzen naute guztiak
Zer gertatzen da pôsible ahal da
Erran dudana dudatzea
Zer nahi duzue, hau ez da metodo bat
Hau da bakarrik probokazioa
Orai aski da utz nazazue
Zuen salbatzailea naiz eta
Denak barkatzen zaituztet, bai denak
Atea idek, ni naiz zuen azken aukera
Atea idek !

16 - ZUEN PROJEKTUETATIK KANPO

Aizue, denbora gehigi bada itotzen nauzuela
Zuen oginduak ezin gehiago soportatuz banoa
Neretzat hautatu nahiduzue, nere nahiak kontutan hartu gabe.
Zuen interesak dira, eta ez nik pentsatu nuena.

"Nere seme maitia, hau da zure emaztea
Berareki, ezkontzen bazira, haundiago erremua."
"Bainan aita, jakinzak aita, hau ez da gertatuko
Aski egin duk urte hauetan orain berriz hasteko
Guretzat dela hire errontzuna hori ez da batere

Hola egin duk haur guzi ekin,
haieri pentsatu gabe."

Zure aitak sufritu egin bazaitu
ez ezak bera bezala egin,
Bakarrik lortuko duzuna beste bizi bat gastatzea.

17 - EUSKARAZ BIZI

Ez da ez euskal gogoa,
Ez belauniko sortua
Bai mintzairaren jabea
Euskara hil uzten badago
Herriari iten zaio uko
Konstituzioa makur da,

Idazlariek euskaraz idatzi
ta gurasoak haurrak euskaldun haz
Hizkuntz imperialistak ez dezatela erraz.
Museotan altxatua nahi dute gure hizkuntza

Nor deabru ari da hemen
tra lala kantatzen
gure mintzaira ostikatzen,
gaur euskara ikaratuta
Barneko mendietan dago,
Baserrietan bizi baita ainitz lasaiago.

Zein da gaur gure ardura
Euskalduna izatea eta
Euskaraz aritzea
Bestalde debalde baitira
irrintzina eta ikurrina

ta abertzaletasuna
gezurretan jantzia.

Museotan altxatua nahi dute gure hizkuntza

Ez ote zaigu geldituko,
Benetan mutu betiko
Euskaraz bizitzeko ez bagira gauzo,
Euskotasun guztia dugu gezur hutsa.
Euskarari emozu bihotz eta gogo
Euskara erahiltzeko baitira frango
Euskara bitartez gaitu
Lurrak abizendun in,
Euskaraz ez badakizu,
Nongoa zaren ere ez jakin,
Euskalduntzeko eginbidea
Dute erdaldun guziek,
Ulert eta ikas

Museotan altxatua nahi dute gure hizkuntza
Inoiz egonen ez baita!

18 - FAMILIAREN NAGUSIA

Zu zarelako familiaren nagusia
Nahi duzuna egitea normala dela segur zira
Emaztea sukaldean eta zu ostatuan
Goxe bazira jarri eta bera sehia

Eta saldà hotza baldin bada
Eskuinez zure eskerrak

Baxerak eginak badira
Besterik gabe agintzen diozu
Zurekin oheratzera

Haurrak sortu zaizkizu hortaz harro zira
Aski haundiak dira orduan ama laguntzera
Alferrak badira baduzu zure makila
Ezkuntza ona eman behar diezu eta

Egun batez lanetik sartzen
Etxean inor atsematen
Ulertzea ez zira saiatzen
Oihukatu nahiago duzu
Familia madarikatuz

Haiek meresi ahal dute sufritzea
Zure eskuetan da aterabidea
Inork konpontzen ahalko du salbu zuk

19 - ZIPOTZERO ETA ERO

Erran zenuen guzia dena gezurra,
Berrogei urte konbina hortan zarela,
Eta egun oino badira eroak zuretzat bozkatzeko.
Ta orain zazpi urterako hemen zira,
Egiteko nahi duzun guztia denbora,
Gaur bonba atomikarekin hasten zira deabru pitoa
Errairen ahal duzu ongi hasi zarela,
Hiru hilabete ta mundu guzia kontra,
He txo habe joaten bazira pikutara,
Ta zure lagunak!